t

D.a 3.a Empiezase la explicacion del Credo y se explica el Misterio de la Santissima Trinidad.

Christaubari salvetaco necesario dirian lau gauzen antean, ceintzuc dirian, leenago esan dodan leguez, fedea, Esperanza, caridadea, eta obra onac, onetati, leenengoa da fedea, au da atea, eta videa vizitza eternonaco dijo S.n Ciriloc: janua est et via vite. esan neben explicadu nitubancan iru virtute onec, Christauben fede catholicoa dala virtute sobre natural bat, ceñegaz sinisquetan dogu ciertamente eguijac, Jaimoac reveladu deutzanac Elizeari; baña orain da preciso jaquitea ya, ce egui dirian onec, eta cer sinistuco dogun. Esan eguidazu. Cer sinisquetan dozu fedean?

Eliza Ama Santa Catholica Erromacoac daucan guztia, eta sinisquetan dabena, principalmente Credoan eta Articulu fedecoetan contenietan dana.

Ondo dijozu. Sinistu bear dogu Eliza Ama S.ta Catholica Erromanoac daucan guztia, eta sinisquetan dabena. Reparadu eguizube orain nola esan dan: principalmente contenietan dana Credoan eta Articulu fedecoetan. Esan gura dau onec, sinistu bear izan arren egui catolico guztiac, batzubendaco dala bastante fede general bat, edo implicitoa, ou cerratceen dabena leescoa acto fedeco onec: Nic si

nisquetan dot Eliza Ama Santa Catholica Erromaroa dau
can guztia eta sinisquetan dabena; baña beste bat
zubendaco bear dala fede claruagoa, esaten deutzagu
na explicitoa; eta fede explicito onegaz sinistu
bear ditugu gueure fede Santuco Misterio principalac.
Au da constantea Teologoen artean, eta dijo expre
samente escoletaco Aingueru S.to Thomasec berva onec
caz: quantum ergo ad prima Credibilia, que sunt
articula fidei, tenetur homo explicite credere.

Eta cegaiti lo mismo, eta aun gueiago Articulu
fedecoac contenietan daubena bano, contenietan da
ben Credoac, eta cegaiti icartendan facilidade gue
ijagogaz, irago naz expliquetara.

Noc eguin eben Credoa?

Amavi Apostolubac, joan gura izan eubenean
[pre]dicatzan Evangelioa mundu guztiti.

Centaraco eguin eben?

Gu fedean informetaco.

Cer contenietan da Credoan?

Gure fede Santuben amavi parte principalac.

Nori pertenecietan jaco?

Leenengoa Aitari, Sei Semeari, eta beste bos
tac Espiritu Santubari.

Credoa, ceñi Teologoac esaten deutzen Sim
boa, ezta propiamente orazinoa; espada Articulu

diversoen coleccinoa, edo agregaduba; eta cegaiti contenietan ditaban agregaducitubenac, edo compon du citubena Apostolu Sagradubac, joan guza izan eubenean prediquetan Evangelijoa Mundu gustiti, ilustraduba ya Espiritu Santubagaiti, ozregaiti esaten deutzagu Credo oni Apostolubena, edo simbo lo Apostólico, diferenciaz S.n Atanasioc compondu eben simbolotí; eta Padrien simbolotí, aprovaduba Concilio arogaiti: eta iru izan arren, gustiac implicita mente contemietan daube gauza bat, expresino gu taggaz, edo guehiagogaz, eta gustiac dira fedecoac.

Credo Apostólicoa, cein dan gustioc esaten dogu na gueure lenguagian, da egui catholicoen recolec cino bat, entzun eubena, eta ecusi eubena predique tan, eta obretan Apostolubac Jesu Christoni gueure fede santuben Maestro eguiaccoani: onec dira esparciduta munduti predicadu citubenac Apostolu bac Genteai, nola dirian Judegubai, Samaritanuai, eta Gentilai, anuncietan eustela barri ona Genero humanoen reparacinoena Jesu Christogaiti, gui zonen reconciliacinoene Jaincoagaz; Jesu Chris toen vicien, pasinoen maravilla gustiac, ceñen izan cirian testigu; eta finalmente egui gustiac, exacutci eustenac Jesu Christoc, pertenecienteac legue evangelicoani, eta au da propiamente derit

zona Evangelijoa, verva griegoa, significetan dabe
na barri ona, bada ezin anunciadu ceiteguean barri
felizagoa guizonai, cerruba idigui jatena baño
Mesiasen etorreriaz, ichirie egon da aimberte dem
ran.

Egun oneec guztioc siniquetan cituben pre
dicacinoaz, ceintzue izan cirian ano: bada baca
rric S.n Pedroc, leenengo sermoan, equin ebena
Espiritu santuben etorreria arguero, conventidu
cituban iru milla Judegu, eta beste predicacino ba
ten bost milla. Beste Apostolubac ere equiten eben
frutu andiya, eta aumentetan cirian eguneàn egu
nean conventietan cirian Judeguben numerua;
baña Pueblo onen parteric andiena guezatu
zan, pronosticadu ebena leguez Profetac, bere
obstinacinoan, eta bere incredulidadean. Guztia
consetetan da Apostoluben hactubetati.

Au izan zan gure religino catolicoen principio
feliza, eta Jesu Christoen federa convertiducini
anen viciztaia: zan eguiaz chito exemplara, eta
Santuba, cegaiti guztiac euquen viotz bat, eta
amma bat; egocen desprendidurric euren ondasu
netati, bada saltcen cituben, eta eroaten euben
bere importea Apostoluben oñetara, erreparti
du eguijen, eta emon eguijen barochari bere

necesidadeaz conforme. Gustia zan comuna euren artean, ez eucan iñoc gauza propioric, eta egocen ain ichiric euren gaucetati, nola gozoz beteric, euquiten ciñian dichosotzat sufrietea edocein bere gauza Jesu Christo gaiti: Zan ferworea admirablea, eta seguiduba ora cinoa. Ceuri eguizube zeuben viciagaiti, servietan dauben onela orain Christaubac, eta Christoen Discipulu bac? O Jainco santuba, eta cembat guchitu dan lee mengo Christauben sarrao ferborea! Alaco moduban relasadu da ya arcoren artean Christianissimoa, nola esan leiquian gueratu satela bacarric Christauben izena, ezgaiti euren obrac gueiago dira codiciren eta impurecen alabac, pobreza evangelicoenac baño, eracutzi eurcuna Christoc, eta profesadu bear gueuquian Christau eguiarzcoac leguez.

Credoen leenengo Articuluba: Siniz quetandot Jainco Aita guztiz poderosoagan ceruben da lurraen Criadori agan.

Nogan siniz quetan dozu? zuc?

Nic siniz quetan dot Jainco guztiz poderosoa gan, cein dan trinidade santissimo guztia.

Cer adietan dozu trinidade Santissimoagaiti?

Aitea, Semea, eta espiritu Santuba, irru persona distintoac, eta Jainco eguiarco bacar bat.

Aitea Jaincoa da? Bai.

Semea Jaincoa da? Bai.

Eta espiritu Santuba Jaincoa da? Bai.

Yru Jainco dira?

Ez, cegaiti euqui arren iru persona distintoac, dauque naturaleza divino bat.

Articulu onetan leenengo sinistu bear doguna da, Jaincoa dagoana, Sn Pabloc dijuana le[illegible]cer, erazoi en contra; bada berac dictetan dau, izanic Jaincoa On gustia, eta perfeccino gustia, bat bacarra izango dana, cegaiti izanic gustiz poderosoa, estau admitietan bigarrenic. Jaincoa esta gauza materiala, eta gorputza daucana, ecusi, eta icutu leiquiona; da espiritu puruba: Spiritus est Deus, dijo Sn Juanec laugarren Capitulububan, eta ain Soberanoa, magnificoa, eta excelentia, nola da infinitamente poderosoa, sabijua, Justuba, principijoa, eta fina gauza gustiena, baña principio, eta fin baguea. Jainco au izan arren bat subtancian, esencian, eta naturalezan, da trino, au da iru personetan, eta au da Trinidade Santisimoa derechona; au da, Aitea, Semea, eta Espiritu Santuba, iru persona distintoac, eta Jainco eguiazco bat; distintoac personac euren artean, alaco moduban, nola Aita esta Semea, eta Espiritu Santuba; eta lomismo Semea da distintoa Espiritu Santubagandic, eta Aitia gandic. Persona bacocha

distinguiétan da bertiagandic izenagaz, Aita cegai ti engendretan daben semea bere entendimentuban; semea, cegaiti dan engendraduba Aitagandic, eta Espiritu Santuba, cegaiti procedietan daben Aitagandic eta Semeagandic principio bateti leguez, ez generacinoz, ezpada espiracinoz; baña au gueratu bedi Teologoendaco.

Aitia Jaincoa da, Semea Jaincoa da, eta Espiritu Santuba Jaincoa da, baña eztira iru Jainco, ezpada Jainco bat bacarra, cegaiti eztauquen iru naturaleza, ezpada bat bacarra. Equi divino onen semejanza aro daucagu gauza humanoetan ere; Saganna izanic bat bacarra, dauco iru gauza distintoac; colorea, usaina, eta gustua: Animea izanic bat bacarra, dauco iru potencia distintoac; memoria, entendimentuba, eta voronda tea, eta au da exemplunic propijuena, cegaiti Jaincoac eguinguinduban bere imagina eta semejanzara.

Baita manifestadu dau Jaincoac misterio Soberano onen eguija, eta excelencia prodigio maravillosoaquin, sinistu guna eztaubeneen confusinoraco. Digno da jaquitea Velvacensec berta Autore batzuguin dijuana; referietan daube bada, Herege Arrianoren batzuc egocen Fran

ciaro Ciudade baten, egoala Ciudade artaro Obispoa Mesa esaten, ecusi situbala jaursten templuben altuti isu tanta, ceñtala duin Claxubac, gustian semejan teac, eta igualac anditasunean; elducisian juntetaxa cuxac alcarregana, eta guexatu zan arri bat chito preciosoa: Confirmetan ebela Jaincoac milagro one gaz egnia, conferetan cubela fielac Jaincoen unidadiena, eta perronen trinidadiena, Herexeen perfidioen contra.

Aitea da increaduba, semea da increaduba, eta Espiritu Santuba da increaduba; baña eztira isu increadu, bat bacarra baño, cegaiti disian Jainco bacar bat.

Aitea da immensoa, Semea da immensoa, eta Espiritu Santuba da immensoa; baña eztira isu immenso, ezpada immenso bacar bat, cegaiti disian Jainco bacar bat.

Aitea da Eternoa, Semea da Eternoa, eta Espiritu Santuba da Eternoa; baña eztira isu eterno, ezpada Eterno bat, cegaiti disian Jainco bacar bat.

Aitea da omnipotentea, Semea da Omnipotentea, eta Espiritu Santuba da omnipotentea; baña eztira isu Omnipotente; ezpada Omnipotente bat bacarra, cegaiti disian Jainco bacar

bat. Au guztiau constetan da S.n Atanasioen simboloti: eta euqui arren Jaincoac beste titulu admirable asco, esaten deutzagu Credoan Omni potentea, edo guztiz poderosoa, facilidade gueia gogaz inago gatecen siniquetara obra portento soac, manifestetan deuscunac credoac bere pode rijo infinitoen maravillac leguez: baña jaquin daigun ija cer dan Jaincoac criadu dabena.

Noc criadu ditu ceruba, eta lurra ezeberecetī?

Aita Jaincoac, Semear, eta Espiritu Santubar batera.

Noc criadu ditu Suguear, Sapoac, eta beste Animalija immunduac?

Aita Jaincoac, Semear, eta Espiritu Santubar batera.

Eta certaco Criadu ditu Jaincoac?

Beste fin batzuben artean, pecatuben imagi na, eta Semesanzaraco.

Noc criadu ditu Demoniuac?

Jaincoac Criadu cituban, baña Anguerü chito ederrac; baña eurac euren Soberviagaiti jausi ciriam Ceruti, eta gueratu ciriam equimio Demonio chito ichusijac.

Eta guztia criadu daben Jainco au nun dago?

Ceruban, lurrean, eta lecu guztian.

Badago Jaincoa Suztan? Bai.

eta erretan da?

Ez, eta ezta burtietan urretan, eta loitu leitan ere.

Cegaiti?

Cegaiti dan impariblea.

Eta ecurten da Jaincoac eguiten dogun guztia?

Bai, eugui ez arren beguiriz gue leguez; baña ecurten dau guztia bere entendimentu clarubac, cegaiti guztia dago patente Jaincoen virtan.

Jaincoac criadu ditu ceruba, lurra, eta gauza guztiac, eta dago lecu guztian esenciyaz, precenciyaz, eta potenciyaz; Esenciaz, cegaiti bere immensidadeaz betetan daben guztia, esan ebena leguez Jeremias egandi: Numquid celum, et terram ego non impleo? potenciaz, cegaiti dan guztiz poderosoa, leen esan dodana leguez, eta esan eben Omnipotentiac berac: Ego Dominus Omnipotens. Eta precencias, cegaiti gauza guztiac dagocen presente Jaincoani Sn Pabloc diguana leguez: Omnia nuda, et aperta sunt oculis eius.

Egin Catolico au, Jaincoa dagoana presente guztira, eta lecu guztian, gura neugue

nic imprimidu zuben viotzetan, eta memorian iños astuco ez jatzuben moduban, eta pensaduco neuque eguitea obra heroico bat. Cegaiti pen setan dozube dagoala aimberte disolucino cos tumbretan, eta pecatu eguitendala ain frenu guchigaz? Cegaiti dagoan borradurie egui au, ez bacarric memoriati, baita mortalen viotce tati ere: eztaube consideretan Jaincoa presen te, dio Davidec: *Non est Deus in conspectu ejus* Eta emeti dator dempora guztian culpen man chac, animen perdicinoa, eta ruina: *Inqui nate sunt vie illius in omni tempore.*

Orregaiti Aguera Santu Tobiasec, bere Se me amadubari, emoten eutzan consesu salu dablien artean, becaturic eguin ez eiquian eta ten eutzan: *Omnibus diebus vite tue in mente habeto Deum.* Semea, ceure vicico eguin guz tietan euqui eguizu presente Jaincoa ceure pensamentuban, bada onela gordeco zara, eta iñoz eztozu consentiduco pecatuban. O guera tuco balitza consesu sano au imprimiduric guztien viotcetan, eta cé culpa guchi egongo lizatequian! Au da frenu chito poderosoa apartadu gatecen viciyuen carrerati: Cegaiti beguiraquetan deutzanac Juezari presente,

gordeco da ondo cometiditi delitoac, merecietan dituzenac penac, eta castiguzac.

Ecarri eguizube bada, neure oiente amaduboc, Jaincoa presente, izan guza badozube felizac, bada ez bacarric da medijo poderosoa ez ofendietaco; baita da bastante santu izateco ere. Ala esan eutzan Jaincoac Abraham: Ambula coram me, et esto perfectus. Ybili zates neure precencijan, eta izango zara perfectoa.

Eguizube ala neure feligresac, eta guztiz gazteac euqui eguizube veneracino eta devocino especialissimo bat Trinidade Santissimoco Misterijo Soberano oni, cein dan principalena gure fede Santu Catholicoena, eta leenengoa manifestadu eutzana Jaincoac mundubari, esaten ebela, guizona criadu ebenian; faciamus &. Eguin daiguzin guizona gueure imagina, eta semejanzara. Bada izanic Jaincoa bacarra bat, manifestadu eben esanagaz: Eguin daiguzun, persoen plurali dadea; au da personac gueiago diriana, sentietan dabena leguez San Basilioc. (in eorum.) Recibietan dogu, Bautismo santuba mediante, leenengo gracia, Baina Aitien, eta semien, eta Espiritu Santuben izenian, invoquetan dala bere forman.

Leenengo Christaubai berala exacusten eutsen gloriticarinoen Himno au; Gloria Aiteari, Semeari, eta Espiritu Santubari; eta ezasaten saten,

graciac emoteco sarritan, bautizadu ezquero.

Orregaiti aec imitetaco, arri bear dituzube umeac doctrinen lecnengo esne onegaz, eracusten deutezu bela Trinidade Santissimoen misterio soberano au, eta esan daguien sarritan: Gloria Aitean; eta Semean, eta Espiritu Santuban; Amen.

Aita, Semea, eta Espiritu Santuba alabetan ditu Eliza Santiac bere Psalmuben acaberan, eta dei eguiten deutse bere oracinoetan, aitu daigun Iturri Soberano-onetati datocela gracien urr-guztiac!

Jaincoari emongo jaco guztiagaiti graciac, eta izan dedilla betico glorificaduba Aitea, eta Semea, eta Espiritu Santuba.

Amen.

MAN 710